

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Hasierako onespina ematea Donemiliagako Udalean hondakinak jasotzea arautzen duen ordenantzari

Udalbatzak, 2025eko ekainaren 12an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespina ematea Donemiliagako Udalean hondakinak jasotzea arautzen duen udal ordenantzari.

Argitara ematen da, interesdunek espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hogeita hamar egun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Jakinarazten zaie, halaber, erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez badute, ordenantza behin betiko bihurtuko dela, espedientea jendaurrean egoteko epea igaro ostean.

Erdoña, 2025eko uztailaren 2a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO